

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

##### Hezkuntza Zerbitzua

#### Hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketetarako laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2023-2024 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko maiatzaren 19an eginiko ohiko bileran, onetsi egin dira hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketetarako laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2023-2024 ikasturtea.

Urriaren 1eko 39/2015 legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 19an

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**

#### 16. Ildoa. Hezkuntza. 16. Ildoaren oinarri espezifikoak. Hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketak, 2023-2024 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko urriaren 14an onartu zituen Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak, 2023 urterako. Oinarri orokor horiek 2022ko azaroaren 7ko ALHAOn (127. zenbakia) argitaratu ziren, eta udalaren webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones)) eta herritarren arreta-bulegoetan kontsulta daitezke. Deialdi espezifiko honetara aurkeztu nahi duten erakundeek bertara jo beharko dute, eskaerak non eta nola aurkeztu behar diren jakiteko, eta eskaera egiten duten erakundeen baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, inprimakiak eta abar ezagutzeko.

##### 1. Hitzaurrea

Vitoria-Gasteizko hiriak, hiri hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, hau da, pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza aukera-berdintasunean, eta modu bidezkoan eta ekitatiboan jasotzea bermatzen duen hezkuntzaren bidez; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboek erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboek. Dirulaguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

##### 2. Dirulaguntzen plan estrategikoa

Dirulaguntzen deialdi hau 2022ko urtarrilaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako dirulaguntzen plan estrategikoan (2022-2024) jasota dago. Dirulaguntzen ildo honi dagokionez, 2022ko martxoaren 1ean aldatu zen Plan Estrategiko hori.

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen lan egiten duten elkarteei laguntzea, bai bazkideei edota horien senitartekoei zuzendutako hezkuntza proiektuak antolatzen eta kudeatzen, bai ikastetxeetako ikasleei edota horien familiei edo irakasleei zuzendutako jarduerak antolatzen eta kudeatzen; betiere, Vitoria-Gasteizen esparruan eta 2023-2024 ikasturtean pertsona horiek eskolan edo gizartean integratzeko bidea sustatu behar dute jarduerak horiek.

### 3. Deialdiaren helburua

16. ildoan, 2023-2024 ikasturtean hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketetarako dirulaguntzak

### 4. Erakunde onuradunak

Deialdia hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak artatzen dituzten elkarteei zuzentzen zaie berariaz; irabazi-asmorik gabeko elkarte izan behar dute elkarte horiek, eta beren egoitza soziala Vitoria-Gasteizen izan behar dute.

### 5. Baliabide ekonomikoak

Gehienez ere 20.000,00 euroko kreditua zuzendu du deialdi honetara Hezkuntza eta Kulturaren Sailak (Hezkuntza Zerbitzua), 2023-2024 ikasturteari begira. Honela banatzen da zenbateko hori:

- 10.176,00 euroko kreditua gehienez, 2023ko udal-aurrekontuan Hezkuntza eta Kulturaren Sailari dagokion 2319.03.3261.48175 aurrekontu-sailaren kargura.
- 9.824,00 euroko kreditua gehienez, betiere 2024ko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta aski badago.

### 6. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagunduko dira 2023ko irailaren 1etik 2024ko uztailaren 31ra bitartean garatzen diren hezkuntza-jarduerak, baldin eta jarduera mota hauetakoren bat edo gehiago badakarte:

- Herritarrei zuzendutako jarduerak, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen hezkuntza-eta gizarte-inklusioa sustatzen dutenak.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen trebetasun sozialak, autoestimua eta autonomia garatzen dituzten prestakuntza-jarduerak.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren eta gazteen familiei zuzendutako jarduerak elkarki laguntzeko bideak eta seme-alaben zainketarako etengabeko prestakuntza sustatzen dituztenak.
- Ikasleei, haien familiei eta irakasleei zuzendutako jarduerak, sentsibilizatzeko eta gizarte-nahiz hezkuntza-inklusioa sustatzeko.

Deialdi honetatik kanpo daude:

- Vitoria-Gasteizko Udalak horientzat berariaz egindako deialdiekin lotutako jarduerak.
- Elkartearen ekipamendu, funtzionamendu eta mantentze-gastuak.
- Jarduera garatzeko beharrezkoa den ekipamendua, hala nola instalazioak, altzariak, lanabes eta tresnak, arropa... Dena den, erabilitako material suntsikorren ehuneko 50 arte sar daiteke.
- Ekitaldi gastronomikoak.
- Lehiaketak eta sariketak.

### 7. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

7.1. Aurkezteko epea: eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2023ko irailaren 29ra arte, azken egun hori barne. Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

7.2. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkeztu daitezke, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

### 8. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

– Elkarteko presidenteak sinatutako dirulaguntzaren eskabidea, Vitoria-Gasteizko Udalak 2023rako emandako dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorretako ereduaren arabera (2022ko azaroaren 7ko ALHAO, 127. zenbakia); webgune honetan ere eskura daitezke: [www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones).

– Eskabide berbera udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetako deialdietara aurkeztu ez dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (oinarri espezifiko hauekin batera doan eranskina).

– Zein proiektutarako eskatzen den dirulaguntza. Proiektuak 20 orrialde izango ditu gehienez, eta honako hauek gutxienez jasoko ditu: proposatutako jardueren deskribapena, jardueren helburuak, kolektibo hartzailea (elkartekideak diren, eskola-taldeak diren adieraziz), aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua, datak, jarduerak egiteko lekua, jarduerak garatzeko hizkuntza eta aurrekontu xehatua.

Hezkuntza Zerbitzuan dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten elkarteen kasuan, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

– Eskabidea sinatzen duen pertsonak ordezkatzeko ahalordea duela egiaztatzen duen agiria eta pertsona fisikoaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) fotokopia, eskaera egin duen elkarteko legezko ordezkariarena, zehazki, Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztutako azken eskaerarekiko aldatu egin bada.

– Elkartearen estatutuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean elkartea legez erata da goela egiaztatzen duten agiriak.

– Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

– Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, elkarreak izan behar duela titularra.

### 9. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen barneko dirulaguntza hau bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gainditu, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

### 10. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak norgehiagoka prozeduraren arabera emango dira, 11. puntuan ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, txosten tekniko eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri espezifiko hauetan zehaztutako irizpideekin bat etorrira.

Horretarako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eskumena izango duena, batetik, eskabideak, bestetik, aurkeztutako hezkuntza-jarduketako proiektuak eta, azkenik dirulaguntzak emateko proposamena baloratzeko. Hezkuntza Zerbitzuko buruak, Hezkuntza Ekintzen Ataleko arduradunak eta atal bereko teknikari batek osatuko dute.

Saileko Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egingo ditu dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduerak.

Tokiko Gobernu Batzarrak ebartziko du dirulaguntzak emango diren, huraxe baita organo eskuduna.

#### **11. Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak**

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuz zehaztuko da, honako irizpide hauen arabera:

a) Aurrekontu osoaren ehuneko 50 zati berdinetan banatuko da onartutako elkarteen artean, baldin eta proiektuaren balorazioak gutxienez 25 puntu lortu baditu b) atalean.

b) Gainerako aurrekontuaren ehuneko 50a, aurkeztutako proiektuaren balorazioan lortutako puntuazioaren arabera, kalitateari, koherentziari eta irismenari dagokienez. Atal honetan gehienez 50 puntu lor daitezke.

Dirulaguntza lortzeko, aurkeztutako proiektuak gutxienez 25 puntu lortu beharko ditu atal honetan.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

1. Proiektuaren helburuak: helburuak esku hartu nahi den testuingurura egokitzea, eta haien eraginkortasun maila: 10 puntu, gehienez.

2. Jardueren proposamena: gehienez 20 puntu.

– Jardueren koherentzia, proposatutako helburuekiko: gehienez 4 puntu.

– Jarduerak talde hartzaileen arabera egokitzea: 3 puntu gehienez.

– Jardueren koherentzia proiektuan aurreikusitako giza baliabideekin eta baliabide material zein ekonomikoekin: gehienez 3 puntu.

– Jarduerak garatzean gauzatu beharreko metodologia egokitzea: gehienez 3 puntu.

– Arretarako edo/eta hezkuntzarako sareak sortzea edo sendotzea sustatzen duten jarduerak: gehienez 4 puntu.

– Euskararen ahozko erabilera proiektuaren garapenean: 3 puntu, gehienez.

3. Jardueren kolektibo hartzaileak: gehienez 15 puntu.

– Erakundearen instalazioetatik edo espaziotik kanpo egin beharreko jarduerak edo/eta erakundeak ez diren pertsonen zuzendutakoak: 5 puntu, gehienez.

– Arreta emateko eta/edo gaitzeko jardueretan aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua eta haien egokitasuna, inplementatu beharreko jardueraren izaerari eta irismenari dagokienez: 5 puntu, gehienez.

– Herritarrei sentsibilizatzeko neurriak planteatzea: 5 puntu, gehienez.

4. Ebaluazioa. Proiektuak proposatutako jarduerak baloratzeko alderdiak eta irizpideak jasotzen ditu: 5 puntu, gehienez.

Dirulaguntzen deialdi honek duen kreditua honela banatuko da:

– Erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbateko osoa a) eta b) atalen baturatik abiatuta zehaztuko da. Erakunde onuradunei emango zaien gehieneko dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da.

– Gehieneko zenbatekoaren irizpidea aplikatu ondoren, soberako kopuru bat badago, diruz lagundu beharreko gehieneko kopurua lortu ez duten erakunde eskatzaileen artean banatuko da. Horretarako, a) atalean ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

## 12. Ebazteko eta jakinarazteko epea

2023rako Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera jokatu da. Oinarri orokor horiek 2022ko azaroaren 7ko ALHAOn (127. zenbakian) argitaratu ziren, eta webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones)) nahiz herritarren arreta-bulegoetan begiratu daitezke.

## 13. Dirulaguntzen ordainketa eta justifikatzeko modua

13.1. Dirulaguntza ordaintzea: udalak ordainketa alde aurretik egingo du, bi zatitan:

– Lehenengoa, 2023ko aurrekontuaren kargura.

– Bigarrena, 2024ko aurrekontuaren kargura. Horretarako, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da 2024rako udal-aurrekontuan.

Erakunde onuradunek Hezkuntzako Udal Zerbitzuak egin beharreko kontrol- eta egiaztapen-jarduerak bete beharko dituzte, bai eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1998 Legean edo eskumen hori esleitua duten beste organo batzuetan aurreikusitakoak ere.

Nolanahi ere, Hezkuntza Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatze fasean, erakunde onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa azkenean gauzatutako eta justifikatutako zenbatekoarekin bat datorrela egiaztatuko du. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da. Dena den, behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta dagozkien berandutze-interesak itzuli egin beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 b) eta c) artikuluetan ezarritako kasuetan.

13.2. Dirulaguntza justifikatzeko epea: emandako dirulaguntzaren justifikazioa batera egingo da, aldi bakarrean. Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko irailaren 30ean amaituko da, egun hori barne hartuta.

13.3. Dirulaguntzaren justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte elkarte onuradunek:

a) Garatutako proiektuari buruzko azalpen-memoria, lortutako emaitzen berri ere emanda. Parte-hartzeari buruz memorian ematen diren datuei dagokienez, jardueretan parte hartu dutenek agertu behar dute, sexuaren, neska-mutikoen kopuruaren eta emakumeen eta gizonen kopuruaren arabera bereizita.

– Dirulaguntzaren xede diren jardueren programen, argitalpenen, iragarpen-kartelen eta euskarrien zerrenda eta haien aleak, Vitoria-Gasteizko Udalak erakunde laguntzaile gisa duen logotipoa jasota.

– Euskararen erabilerari buruzko jarraipen-fitxa, diruz lagundutako zerbitzua garatzeko erabilitako euskarrietan hizkuntza ofizialak idatziz erabiltzeari buruzkoa, bai eta hizkuntza horiek ahoz erabiltzeari buruzkoa ere (oinarri espezifiko hauei erantsita dago, eta udaleko web-orrian dago eskuragarri).

b) Justifikazio-kontu arrunta (oinarri espezifiko hauei erantsita eta udalaren webgunean eskuragarri dagoena). Bertan, jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa jasoko da, honako atal hauek barne hartzen dituena:

– 1. atala. Proiektua edo jarduera beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ere finantzatzen badute eta/edo erakunde onuradunak baliabide propioak baditu, bete egin beharko da.

– 2. atala. Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda, udal-dirulaguntzari egozten zaizkionak. Gastu-motak, pertsona edo erakunde hartzekodunaren identifikazioa, kontzeptua, data eta zenbatekoa, 2. atalean jasotzen den bezala. Gainera, jatorrizko fakturak eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duen agiria erantsiko dira.

– 3. atala. Proiektuaren/jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

– 4. atala. Langileen eta Gizarte Segurantzaren gastuak. Eranskin hau beteko da diruz lagundutako proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko, erakunde edo pertsona onuradunaren kargurako nominak eta TCak erantsita (egungo RNT eta RLC), dagozkien ordainketa-egiaztagiriekin batera. Era berean, PFEZaren atxikipenen 110 hiruileko ereduak eta/edo urteko 190 ereduak aurkeztuko dira, dagozkien ordainketa-egiaztagiriekin batera.

– Eta erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honetarako, horrela zehazten da:

– Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburua edo xedea betetzeko sortu zirela eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla dioen aitortpena.

– Proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez izatearen adierazpena.

– Pertsona edo erakunde onuradunaren aitortpena, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza edo diru-sarrera batzuk zehazten dituen, zenbatekoa eta jatorria adierazita, edo, hala badagokio, proiekturako beste dirulaguntzarik eskatu ez duela edo jasotzen ez duela adierazten duen adierazpena.

#### **14. Elkarte onuradunen betebeharrak**

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak dituzte:

– Diruz lagundutako jarduerak eragin ditzakeen arriskuen ardura hartzea eta, hala badagokio, aseguru egokia hitzartzea.

– Diruz lagundutako proiektuak irisgarriak diren lokal edo espazioetan egingo dira, abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, xedatzen duenarekin bat etorrita (EHAA, 1997ko abenduaren 24koa); eta, horrez gain, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzen buruzkoak (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa), garatutako arau teknikoak bete beharko dira.

– Diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak liburuxken, kartelen, buletin eta blog elektronikoen bidez nahiz oro har herritarrei zuzendutako beste edozein euskarraren bidez zabaltzean, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da. Betebeharrak horren jarraipena egingo da, elkarte onuradunak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz.

– Sexu Delitugileen Erregistro Orokorrean delitirik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria: urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabearen Babes Juridikoarenak, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituenak (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak, uztailearen 28koak, aldatu zuen) eta Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak, urriaren 14koak, haxe xedatzen dute: normalean adingabeekin egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta ekintzetan sarbidea izateko baldintza izango da epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrak jaso ez izana. Horretarako, dirulaguntzaren onuradun izan diren erakundeek jarduera horiek gauzatzeko kontratatutako langileei zera eskatuko diete: Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiaren ezezko ziurtagiria, Erregistro horrek berak emana. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri horrez gain, beren nazionalitateari dagokien herrialdeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ezezko ziurtagiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango die udalak erakunde onuradunei edozein unetan.

**15. Informazioa eta aholkularitza**

Deialdi honen esparruan dirulaguntza eskatzeko interesa duten elkarteei informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Argibide-eskaerak: María Jesús Portillo 945 16 12 27 - [mjportillo@vitoria-gasteiz.org](mailto:mjportillo@vitoria-gasteiz.org) edo 945 16 12 30 - [hezkuntza@vitoria-gasteiz.org](mailto:hezkuntza@vitoria-gasteiz.org).

**16. Itzultzea**

Jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar badira, Kutxabankeko udal-kontu honetan egingo dira: ES03 2095 0611 03 1090952416; ondoren, diru-sarreraren egiaztatzea aurkeztuko dute Hezkuntza Zerbitzuan.



CUJO\_001

**Justifikazio-kontua arrunta**  
Cuenta justificativa ordinaria

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)
[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

**AITORTZAILEAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA DECLARANTE**

Izen-deiturak – Nombre y Apellidos

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2			
Izena Nombre				NAN/AIZ DNI/NIE	

Harremanetarako – Datos de contacto

1. Telefonoa Teléfono 1		2. Telefonoa Teléfono 2		Posta elektronikoa Correo Electrónico	
----------------------------	--	----------------------------	--	--	--

Helbidea – Dirección

Kalea Calle				Zenbakia Número		Letra Letra		Eskailera Escalera	
Solairua Piso	Atea Mano		Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población				
Udalerrria Municipio				Lurraldea Provincia					

**AITORTZAILEAK ORDEZKATZEN DUEN ENTITATEAREN DATUAK**  
**DATOS DE LA ENTIDAD EN REPRESENTACIÓN DE QUIEN ACTUA EL DECLARANTE**

Erakundearen kargua – En calidad de

Erakundea – Entidad

IFZ -NIF

--	--	--

Helbidea – Dirección

Kalea Calle				Zenbakia Número		Letra Letra		Eskailera Escalera	
Solairua Piso	Atea Mano		Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población				
Udalerrria Municipio				Lurraldea Provincia					

Harremanetarako – Datos de contacto

1. Telefonoa Teléfono 1		2. Telefonoa Teléfono 2		Posta elektronikoa Correo Electrónico	
----------------------------	--	----------------------------	--	--	--

Web orria – Página web

--

**PROIEKTUA/DIRULAGUNTZAREN ILDOA – PROYECTO/LÍNEA DE SUBVENCIÓN**

--





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CUJO\_001

**Justifikazio-kontua arrunta**  
Cuenta justificativa ordinaria

[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

**1. atala.- FUNTS PROPIOEN JUSTIFIKAZIOA EDO BESTE ERAKUNDE BATZUETATIK JASOTAKOA**  
**Apartado 1.- JUSTIFICACIÓN DE FONDOS PROPIOS O RECIBIDOS DE OTRAS ENTIDADES**

Beste erakunde batzuek jasotako baliabide propioen edo funtsen zenbatekoa, jatorria eta aipatutako proiektuan/linean aplikatzea justifikatzeko, ondoren zerrendatzen diren **gastuak aitortzen ditu:**

*A efectos de justificar el importe, procedencia y aplicación en el citado proyecto/linea, de los recursos propios o fondos recibidos por otras entidades, **declara los gastos** que a continuación se relacionan:*

I.- Eusko Jaurilaritzaren ekarpena / AFaren ekarpena / Beste erakunde batzuen ekarpena  
I.- Aportación del Gobierno Vasco/Aportación de la DFA/Aportación de Otras Entidades **(1)**

**(1)** Adierazi zein, eta erakunde bakoitzeko eranskin bana egin – Indicar cuáles

Zk. - N.º	Igorlea - Emisor	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
Guztira - Total				

II.- Baliabide propioak - II.- Recursos propios

Zk. - N.º	Igorlea - Emisor	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
Guztira - Total				

**2. atala.- PROIEKTUARI DAGOZKION GASTUEN EGIAZTAGIRIEN ZERRENDA**  
**Apartado 2.- RELACIÓN DE JUSTIFICANTES DE GASTO RELATIVOS AL PROYECTO**

Langileen gastuak – Gastos de personal

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Langileen gastuz, guztira – Total gastos personal				



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CUJO\_001

**Justifikazio-kontua arrunta**  
Cuenta justificativa ordinaria

[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

**Material erosketak – Compras de material**

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Material erostea, guztira – Total compras material				

**Garraioa – Transporte**

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Garraioa, guztira – Total transporte				

**Hornigaiak – Suministros**

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Hornikuntza, guztira – Total suministros				

**Zerbitzu profesionalak – Servicios profesionales**

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Zerbitzu profesionalak, guztira – Total servicios profesionales				

**Inbertsioak – Inversiones**

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Inbertsioak, guztira – Total inversiones				



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CUJO\_001

**Justifikazio-kontua arrunta**  
Cuenta justificativa ordinaria

[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

**Beste gastu batzuk – Otros gastos**

	Mota - Tipo	Data - Fecha	Kontzeptua - Concepto	Zenbatekoa - Importe
1				
2				
3				
4				
5				
Bestelako gastuak, guztira – Total otros gastos				

**ZURITUTAKO GASTUEN LABURPENA – RESUMEN DE LOS GASTOS JUSTIFICADOS**

Langileen gastuak – Gastos de personal	€
Material erosketak – Compras de material	€
Garraioa – Transporte	€
Hornigaiak – Suministros	€
Zerbitzu profesionalak – Servicios profesionales	€
Inbertsioak – Inversiones	€
Beste gastu batzuk – Otros gastos	€
<b>GUZTIRA - TOTAL</b>	<b>€</b>

**3. atala.- PROIEKTUAREN/JARDUERAREN DIRU-SARREREN ETA GASTUEN BALANTZEA**  
**Apartado 3.- BALANCE DE INGRESOS Y GASTOS DEL PROYECTO/ACTIVIDAD**

**IRABAZIAK – INGRESOS**

Gasteizko Udalaren dirulaguntza – Subvención del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	€
Beste administrazio batzuen dirulaguntza – Subvención de otras administraciones	€
Eskatzen duen entitatearen ekarpena – Aportación de la entidad solicitante	€
Erabiltzaileen ekarpena – Aportación de usuarios	€
Beste entitate batzuen ekarpena – Aportación de otras entidades	€
<b>GUZTIRA - TOTAL</b>	<b>€</b>

**GASTUAK – GASTOS**

	UDALA AYUNTAMIENTO	ENTITATEA ENTIDAD	BESTE ADMIN. BATZUK OTRAS ADMONES.	GUZTIRA TOTAL
Langileen gastuak Gastos de personal				
Materiala erostea Compra de material				
Garraioak Transporte				
Hornikuntzak Suministros				
Zerbitzu profesionalak Servicios profesionales				
Inbertsioak Inversiones				
<b>GASTUAK, GUZTIRA – TOTAL GASTOS</b>				





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CUJO\_001

### Justifikazio-kontua arrunta Cuenta justificativa ordinaria

[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

#### 2. Pertsona - Persona 2

Izen-deiturak – Nombre y Apellidos

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2		Telefono Teléfono	
Izena Nombre		NAN/AIZ DNI/NIE			

Honako kargu gisa – En calidad de

Joan-etorrirako erabilitako egunak – Se ha desplazado en la fechas siguientes:

--	--

Herri honetara – a la localidad de

Joan-etorriaren arrazoia – Motivo del desplazamiento

--	--

#### 3. Pertsona - Persona 3

Izen-deiturak – Nombre y Apellidos

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2		Telefono Teléfono	
Izena Nombre		NAN/AIZ DNI/NIE			

Honako kargu gisa – En calidad de

Joan-etorrirako erabilitako egunak – Se ha desplazado en la fechas siguientes:

--	--

Herri honetara – a la localidad de

Joan-etorriaren arrazoia – Motivo del desplazamiento

--	--

#### GASTUAK – GASTOS

Egonaldi-egunak – Días de alojamiento

Mantenu-egunak – Días de manutención

--	--

Garraio txartelak (autobusa, hegazkina, taxia, etab.) – Billetes de transporte (autobús, avión, taxi, etc.)

--

Kilometroak – Kilometraje

Km kopurua – N.º Km

Kilometroaren prezioa – Precio del Km. (€)

Zenbateko osoa – Importe total

--	--	--

Bestelakoak (autobideko bidesaria-tiketa) – Otros (ticket del peaje de la autopista)

--

Edozein kasutan ere, aitorzen den gastuaren ordainagiriak aurkeztu behar dituzu (fakturak, tiketak, garraio txartelak, etab.), kilometro gastuak izan ezik.

En cualquier caso hay que aportar los justificantes del gasto que se declara (facturas, tickets, billetes de transporte, etc.), excepto los gastos de kilometraje.



[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CUJO\_001

**Justifikazio-kontua arrunta**  
Cuenta justificativa ordinaria

[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

Azaldutakoa ikusita, era berean

A la vista de lo expuesto, asimismo

**AITORTZEN DU – DECLARA:**

- Honekin batera bikaltzen ditudan fakturak, ordainagiriak eta gastu-egiaztagiriak, aurreikusitako helburua burutzetik Portu zirela, hau da, Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatutako programa hau gauzateak.  
*Que las facturas, recibos y/o justificantes que se adjuntan se generaron como consecuencia del objeto o fin previsto y han sido financiadas por la aportación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.*
- Erakundeak/elkarteak ez duela soldatapeko langilerik.  
*Que la entidad/asociación a la que representa no cuenta con personal asalariado a su cargo.*
- Gasteizko Udalak diruz lagundutako proiektua gauzatzean [ ] €-ko gastu a izan da, zeharkako gastuei dagokienez.  
*Que en la ejecución del proyecto subvencionado por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se ha incurrido en [ ] €, en concepto de gastos indirectos.*
- Baduela bestelako finantzaketa-iturririk proiektua finantzatezeko:  
*Si dispone para la financiación del proyecto de otras fuentes de financiación:*

Entitatea – Entidad	Zenbateko – Importe
	€
	€
	€
	€

- Ez duela beste diru-laguntzarik eskatu, ezta jaso ere.  
*No ha solicitado ni es perceptora de otras subvenciones para el proyecto.*

